



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko urriaren 17a

19. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-23/MOC-00045. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita neurri fiskalen lehen sorta bat abiaraz dezan errenta txiki eta ertainen erosahaltenaren galera nabarmena leuntzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez. María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkeztu du (2. or.).
- 11-23/MOC-00048. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita eskola publikoan bikoiztu ditzan legezko ratioa gainditzen duten ikasgelak. María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztu du (3. or.).
- 11-23/MOC-00050. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Itunarekin duen konpromisoa. Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkeztu dute (4. or.).
- 11-23/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita giltzurrun-, gibel- eta bihotz-transplanteetarako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskaini ezin dituen prestazioak Osasun Sistema Nazionalako baliabideetatik eman daitezkeen. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (5. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide hautatzea. Hautaigatzak aurkezteko epea luzatzea (7. or.).

---

**E saila:**

**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-23/MOC-00045. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita neurri fiskalen lehen sorta bat abiaraz dezan errenta txiki eta ertainen erosahalmenaren galera nabarmena leuntzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez**

*MARÍA JESÚS VALDEMOROS ERRO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Jesús Valdemoros Erro andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita neurri fiskalen lehen sorta bat abiaraz dezan errenta txiki eta ertainen erosahalmenaren galera nabarmena leuntzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako María Jesús Valdemoros Erro andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premia-tzen baitu neurri fiskalen lehen sorta bat abiaraz dezan errenta txiki eta ertainen erosahalmenaren galera nabarmena leuntzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez.

Zioen azalpena.

Gertu dugu 2023aren amaiera, eta oraindik bizi dugu orain dela bi urte luze hasi zen inflazio-aldia. Izan ere, udan Europako Banku Zentralaren inflazio-rako helburutik gertu dauden balioak erdietsi ondoren, eta Estatistikako Institutu Nazionalak berriki argitaratu duen irailerako datu aurreratuaren arabera, Espainiako ekonomiak hiru hilabete jarraitu bildu ditu zeinetan prezioen igoera azkartu den, % 3,5eraino. Horri gehitu behar zaio azpiko inflazio-tasa urtearteko % 6tik gertu dauden balioetan dagoela oraindik ere. Datu hori kezagarria da, erakusten duelako prezioen bilakaerak, faktore iragankor edo koiunturakoak gorabehera, ez duela baretu nahi, eta horrek pentsarazten du berandutuko dela prezioen egonkortasunarekin bateragarri diren balioetara itzultzea.

Testuinguru horretan, familiek erosahalmenaren galera nabarmena jasaten ari dira, gero eta handiagoa, inflazioak haien diru-sarrera nominalen erosahalmena higitzen duen neurrian. Fenomeno horren bultzatzailea da, era berean, Europako Banku Zentralak ezarritako interes-tasen igoera, familiek ordaindu behar dituzten hipoteken kuotak igotzen dituelako. Ildo horretatik, joan den irailean Europako Banku Zentralak berriro igo zituen tasak, % 0,25, eta horrela % 4,5 egin arte, alegia, balio altuena 2001. urteaz geroztik. Horren ondorioa da urria hasi denetik Euriborraren batezbestekoa % 4,2raino iritsi dela, balio altuena 2008. urteaz geroztik. Halatan, kalkulatzeko denez, Europako Banku Zentralaren azken igoerak ekar dezake familia hipotekadunek urtean 1.600 eurotik gora ordaintzea Espainian batezbesteko hipotekarako.

Gure zerga sistema ere familien errentaren galera horren bultzatzailea da, inflazioaren eraginatik. Esate baterako, BEZaren diru-bilketa areagotzen da salmenta prezio handiagoen gaine-

an aplikatzen denean. Bestetik, PFEZak, prezioei doitu gabeko datu nominaletan ezarrita dauden oinarriei kargak ezartzean inflazioa zerga gehigarri bat bihurtzen du. Karga-tasa bidegabea da, inork onetsi gabea izateaz gain jarduten duelako kontuan hartu gabe ordaindu behar dutenen benetako ahalmen ekonomikoa. PFEZa deflaktatzeak lagunduko luke ondorio negatibo horiek leuntzen, eta ahalbidetuko luke inflazioak gure fiskalitatearekin batera sortutako erreta eskuragarriaren galera neurri batean moteltzen.

Erabaki proposamena:

Hori guztia dela-eta, Nafarroako Parlamentuak Foru Gobernua premiatzen du neurri fiskalen lehen sorta bat abiaraz dezan errenta txiki eta ertainen erosahalmenaren galera nabarmena

leuntzeko, 2023ko urtarrilaren 1etik aitzinako eraginez. Horretarako, proposatzen dugu:

1. PFEZaren likidazio-oinarriak doitzea, PFEZeko tarifaren deflaktazio progresibo baten bidez, % 7aren eta 9,5aren artekoa, 50.000 eurorainoko errentetarako.

2. % 5eko deflaktazioa gutxieneko pertsonal eta familiarretan.

3. % 9ko deflaktazioa lanagatiko kenkarietan, 50.000 eurorainoko lan-etekineterako.

Iruñean, 2023ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: María Jesús Valdemoros Erro

## **11-23/MOC-00048. Mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita eskola publikoan bikoiztu ditzan legezko ratioa gainditzen duten ikasgelak**

*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita eskola publikoan bikoiztu ditzan legezko ratioa gainditzen duten ikasgelak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena.

2015az geroztik Nafarroan legegintzaldirako akordioak sinatu dira alderdi aurrerakoien artean, eta horietan konpromiso sendoak jasotzen dira Nafarroa anitz, aurrerakoi, garantista, sozial, solidario, kohesionatu eta inor atzean uzten ez duen bateranzko bidea egiteko. Hori horrela izan dadin, badira kontu batzuk, idatzi gabe egonda ere, aurretiazko baldintzak direnak, eta horietako bat da, noski, onartzea eskola publikoan gehienezko ratioa gainditzen duten taldeak bikoiztea, ikastetxearen espazio eta antolamenduak ahalbidetzen duenean eta betiere aipatu baldintzak beteta ikastetxeak eskatzen duenean.

Horrela egin zuen aldaketaren gobernuak eta hala egin zen, neurri handi batean, pasa den legegintzaldian ere. Eta Geroa Bairen nahia da horrela egiten jarraitzea. Legegintzaldi honetarako akordioa sinatzerakoan, Geroa Baik uste zuen beste urrats bat egin behar zela eta ratioa linealki jaitsi behar zela. Osoko Bilkurak duela gutxi onetsitako ratioen jaitsierari buruzko mozioaren eztabaidan azaldu eta aldeztu genuen moduan, adostasunik ez egon arren, ez diogu uko egiten neurri horren egokitasuna aldeztuari, Hezkuntza Departamentua ratioei buruz egiten ari den azterlanak emanen dizkigun datuak ezagutu bitartean.

Urteetan zehar bikoizketa eskari asko izan dira, eta horietako batzuek Parlamentuaren lan-bilkuretan amaitu dute. Legegintzaldi guztietan izan dira halakoak, bai eta 2015az geroztik ere, eta gehienetan ebazpena aldekoa izan da.

Geroa Bai ratioen jaitsiera linealaren alde dago; horrenbestez, begi bistakoa da Geroa Bai ikastal-deak bikoiztearen alde dagoela arauan aurreikusitako ikasle kopurua gainditzen denean. Arauak ikasgelako ikasle kopuru gehienezkoa ezartzen du, baina arau berak ikasle gutxiago izatea ere baimentzen du. Hau da, behar berezietarako edo ustekabeetarako postuak gordetzen direla aintzat hartuta 25 jartzen duen tokian 26 onartzea defendagarria bada ere; ez dugu ikusten non dagoen bikoizketa egiteko arazoa. 26 legezkoa da.

Bikoizketa egitea ere bai. Geroa Baik nahiago du araua horrela aplikatzea, legezotasun hori,

arauaren barruan ikasgelako ikasle kopurua murriztea ahalbidetzen duena.

Hori dela eta, adostasun faltagatik araua ez dela aldatuko jakinda ere, Geroa Baik eskatzen dio Hezkuntza Departamentuari ahal den guztietan bikoizketa egiteko borondatea ager dezan. Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du eskola publikoan, ahal den guztietan, kasuko ikas-tetxearekin adostuta, ikasgelako 25 ikasleren ratioa gainditzen duten taldeen bikoizketa egin dezan.

Iruñean, 2023ko urriaren 10ean

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

## **11-23/MOC-00050. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Itunarekin duen konpromisoa**

*NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, EH BILDU NAFARROA, GEROA BAI ETA CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, EH Bildu Nafarroa, Geroa Bai eta Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioek aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Itunarekin duen konpromisoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, 2023ko urriaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatu dadin.

Zioen azalpena.

Nazio Batuen babesarekin, Pobrezia Desagerarazteko Nazioarteko Eguna ospatuko da urriaren 17an.

Pobrezia mota guztiak mundu osoan desageraraztea da Garapen Jasangarrirako Helburuetan lehendabizikoa. Une honetan, munduko biztanleriaren ehuneko hamar inguru bizi da muturreko pobrezian, bere oinarritzko premiak –osasuna, hezkuntza– asetzeko larri eta ura edo saneamendua lortzeko larri, besteak beste. Haurrek dituzte zailtasunak bereziki; izan ere, bost harretatik bat bizi da muturreko pobrezian, eta bizitzako lehen urteetako pobrezia eta gabezia horien eragin negatiboak bizi osoan luza daitezke.

Egungo joera mantentzen baldin bada, 575 milioi pertsona biziko dira muturreko pobrezian,

eta herrialdeen heren batek soilik murriztuko du erdira bere pobrezia-maila nazionala 2030erako.

Pobrezia bizimodu jasagarria ziurtatzeko diru-sarrera eta baliabide falta edukitzetik haratago doan zerbait da. Giza eskubideen arloko arazoa da.

Pobrezia adierazpenak dira, besteak beste, gosea, malnutrizioa, etxebizitza duinik ez izatea, eta hezkuntza, osasuna edo enplegua bezalako beste zerbitzu oinarrizko batzuetarako irispide mugatua izatea.

Legebiltzar honetan aurrekaririk ez duen erabaki batean, ez zen onetsi Pobrezia Desagerrarazteko Nazioarteko Egunarekin bat egiteko adierazpen instituzionala, Voxek aurka bozkatu baitzuen, 2030 Agendaren helburuak bere egiten ez dituela-eta. Bozkatu behar zenaren garrantzia, milioika pertsonaren egoera, desberdinkerien areagotzea eta berdintasunaren aldeko borroka ikusita,

Talde parlamentariok honako erabaki proposamen honen aldeko konpromisoa hartzen dugu:

1.- Pobrezia eta Desberdinkeria aurkako Nafarroako Itunarekiko konpromisoa berresten dugu.

2.- Itun horren jarraipena egiteko eta ituna betetzeko urratsak egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen dugu..

3.- Erronka global berriei aurre egiteko konpromisoa berresten dugu, desberdinkeria areagotu egin baitira gure gizartean eta are gehiago herrialde txirotuetan.

4.- Garapen Jasangarrirako Helburuak eta 2030 Agenda garatzearen alde lanean jarraitzeko konpromisoa berresten dugu.

Iruñean, 2023ko urriaren 10ean

Foru parlamentariak: Ramon Alzórriz Goñi, Isabel Aramburu Bergua, Carlos Guzmán Pérez, Javier Arza Porras

## **11-23/MOC-00051. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita giltzurrun-, gibel- eta bihotz-transplanteetarako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskaini ezin dituen prestazioak Osasun Sistema Nazionaleko baliabideetatik eman daitezen**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita giltzurrun-, gibel- eta bihotz-transplanteetarako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eskaini ezin dituen prestazioak Osasun Sistema Nazionaleko baliabideetatik eman daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin eta zuzenketak aurkezteko epea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan buka dadin ezartzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Nafarroako Parlamentuaren 2023ko urriaren 19ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena.

Honako hau dio urriaren 20ko 1207/2006 Errege-dekretuak, Osasun Kohesiorako Funtsaren kudeaketa arautzen duenak:

“Osasun Kohesiorako Funtsak, 21/2001 Legearen bidez sortuak (21/2001 Legea, abenduaren 27koa, erregimen komuneko autonomia erkidegoen eta autonomia-estatutudun hirien finantziario sistema berriko neurri fiskal eta administratiboak arautzen dituena), xede du osasun-laguntzako zerbitzu publikoak eskuratzeko aukeretan berdintasuna bermatzea Espainiako lurralde osoan.

Osasun eta Kontsumo Ministerioari dagokio horren kudeaketa eta banaketa. Maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzkoak, zerbitzuen antolaketa arrazionalizatzeko eta sisteman efizientzia sartzeko kalitate-bermeen politikari dagokionez, 28. artikuluan arautzen ditu erreferentziazko zerbitzuak, eta xedatzen du Osasun Sistema Nazionaleko Lurraldearteko Kontseiluaren baitan izendatuko direla, plangintza-ikuspegi orokor batekin, eta horietan ematen den arreta Osasun Kohesiorako Funtsaren kontura finantzatuko dela.

Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komun Zorroa eta hura gaurkotzeko prozedura ezarritu irailaren 15eko 1030/2006 Errege-dekretuak, berriz, honako hau dio:

2. artikulua. Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komun zorroa.

1. Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komun zorroak teknika, teknologia edo prozeduren multzo bat biltzen du. Halakotzat hartzen dira ezagutza eta esperimantazio zientifikoko inarritutako metodoak, jarduerak eta baliabideak, zeinek osasun prestazioak eraginkor egiten baitituzte.

2. Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko 16/2003 Legearen 3.1 artikuluan jasotakoak dira errege-dekretu honetan ezartzen diren zerbitzu komun zorroaren bidez osasuna eta osasun-laguntza babesteko eskubidearen titularrak.

3. Osasun-administrazioek zehaztuko dute, zeinek bere eskumenen esparruan, prestazioak baliagarri egiten dituzten zerbitzuak eskuratzeko prozedura.

4. Osasun Sistema Nazionaleko erabiltzaileek sarbidea edukiko dute, berdintasun eraginkorreko baldintzetan eduki ere, errege-dekretu honetan aitortzen diren zerbitzu komun zorroan, baldin eta horretarako agindu kliniko edo sanitario bat bada, eta alde batera utzita bizi diren esparru geografikoan teknika, teknologia edo prozedura jakin bat eskaintzen den. Beren esparru geografikoan zorro horretan aurreikusitako teknika, teknologia edo prozeduraren bat eskaintzerik ez duten osasun zerbitzuek behar diren bideak ezarri beharko dituzte halakoak behar dituzten erabiltzaileak haien eskaintzen dizuten zentro edo zerbitzuetara bideratzeko, kasuan kasuko osasun zerbitzuarekin koordinatuta.

5. Errege-dekretu honetan zehazten diren osasun sistema nazionalako prestazioetarako sarbidea bermatuko da alde batera utzita erabiltzaileak edo gaixoak une jakin bakoitzean nazioko lurraldeko zein lurraldetan dauden.

Nafarroan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez ditu zuzenean ematen Osasun Siste-

ma Nazionaleko zorro komunean jasota dauden zenbait prestazio, hala nola bihotz-, gibel- edo giltzurrun-transplanteak. Prestazio horiek Nafarroako Klinika Unibertsitarioarekin –osasun-zentro pribatua– itunduta daude eta hara bideratzen dira, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak finantzatuta.

Osasun Sistema Nazionaleko Zerbitzu Komun Zorroko zenbait prestazio osasun sistema pribatuarekin ituntzeko praktika horrek bi ondorio kaltegarri ditu, gure ustez, Nafarroako osasun publikoari begira. Alde batetik, prestazio horiek entitate pribatu batekin ituntzeak berekin dakarren gastuaren % 100 jasotzen da, – ondorioz, ezin da eskuratu Osasun Kohesiorako Funtsak arautzen duen konpentsazio ekonomikoa–, eta beste alde batetik, ez da garatzen prestakuntza eta osasun-instalazio publikoen egokitzapena, Zerbitzu Komun Zorroko osasun-prestazio horiek zuzenean eman ahal izateko.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu Osasun Sistema Nazionalaren baliabideekin eman daitezkeen Zerbitzu Komun Zorroaren parte diren baina Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak zorro horretan jasotako teknikaririk, teknologiarik edo prozedurarik ez edukitzeagatik ematerik ez dituen prestazioak –bihotz-, gibel- eta giltzurrun-transplanteak, alegia–, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komun zorroa ezartzen duen 1030/2006 Errege-dekretuan eta Osasun Kohesiorako Funtsaren kudeaketa arautzen duen urriaren 20ko 1207/2006 Errege-dekretuan nahiz errege-dekretuok garatzen dituzten arauekin bat.

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Osasun Departamentua premiatzen ditu azter dezan ea bideragarria den prestakuntza eta kualifikazio profesionaleko programa bat garatzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko langilei ahalbidetuko diena laguntza-prestazio horiek guztiak modu progresiboan eman ahal izatea. Eta osasun-instalazioak prestazio horietarako egokitzea. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak teknika horiek garatzearen bideragarritasuna aztertzen den bitartean proposatzen dugu Euskal Autonomia Erkidegoko osasun sistema publikoarekiko lankidetzatza-hitzarmenak egin daitezkeen, osasun sistema publikoan ematea bermatzeko, aipatutako araudian aurreikusitakoari jarraikiz eta Osasun Sistema Nazionaleko erreferentziazko zentro, zerbitzu eta unitateek ezarritako irizpideekin bat etorriz.

Iruñean, 2023ko urriaren 11n

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-23/ELC-00002. Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide hautatzea**

*HAUTAIGATZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2023ko urriaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrek erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42.1.9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Gizarte zerbitzu publikoak kudeatzeko Nafarroako Fundaziorako (Gizain Fundazioa) bi patronatukide hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2023ko urriaren 26ko 17:30ak arte luzatzea.**

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2023ko urriaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

